



ESKORTIZAN EUSKARAZ


ZE BARRI?



PAGEDAR

URLATIK • LANDETARA

10. Alea 1997ko Ekaina



ZE BARRIEN LEHEN URTEBETETZEA

- TANBORRADAN, MITOA: BASAJAUNAREN ALTXORRA
- EKINTZA BERRIAKTXOSNEN INGURUAN
- NOLA EGITEN DA ZE BARRI?

NIAJES **alpinatour**
mucho más que una AGENCIA

Bidai Agentzia

ORTIZ DE ZARATE,4
01005 VITORIA
TF.: (945) 25 98 44
FAX: (945) 27 56 49

FAMILIENTZAT BEREZIA

MALLORCA: 2 NAGUSI + UME BAT • ***HOTELA P.O.= 123.250 Pta-tik aurrera

TENERIFE: 2 NAGUSI + UME BAT • ***HOTELA P.E.= 158.000 Pta-tik aurrera

ESTAMBUL: 8 EGUN, BILBOTIK - EGAZKINA + HOTELA + JOAN ETORRIA + ASEGUROA= 59.900 Pta-tik aurrera

PRAGA: BILBOTIK IRTEERA + 7 GAU HOTELEAN + JOAN ETORRIA= 72.300 Pta-tik aurrera

Ze Barri? Urlatik-Landetara aldizkariak egin du urtebete. Konturatu egin orduko bete dugu lehen urtea. Atzera gainbegiradaxo bat eginez, hasierako helburu guztiak gainditu ditugula esan dezakegu: euskara hutsezko aldizkaria ateratzea, neurri haundienean autofinantziatua eta hilerok hilerok Eskoriatzako etxeetan eta auzoetan zabaldua.

Hasiera bateko orri informatibo xumearen ideia hartatik abiatu, eta orain ateratzen ditugun 8 orrialdeetara heldu gara. Urtea betetzerako pasatu ditugu geure une latzak ere, informazio falta, azken orduko presak, maketazioa, imprentako arazoak, eta nola ez baita akats ugari ere, apurka apurka akatsak zuzentzen eta neurria hartzen goazen arren.



Eskerrak eman beharrean gaude orain artean beraien laguntza publizitate bidez eman diguten lagunei. Baita beraien lanarekin Ze Barri?ko orriak betetzen lagundu



LEHEN URTEA

diguten guztiei ere. Eskertzekoa da Euskera batzordearen aldetik jasotzen ari garen laguntza ere, bai aurten subentzio moduan, bai orain arte publizitate erara sartutakoa eta baita aurrerantzean gure baliabideak garatzeko egiten ari garen ahaleginetan ere. Bestelakoa da orainarte Udaletxetik jasotako erantzuna. Izan ere lotsagarria iruditu zitzaigun Udaletxe bezala publizitatea ez sartzeko onartu zen agiria, publizitateak euskaraz eta erdaraz izan beharko litzatekela aitzakia ipinita. Helduixon/k horri!!!

Gaur egun 8 orrialdetako hilabetekaria gure lan taldearentzat neurri aproposa da, baina gure helbuetako bat Ze Barri? sendotuz joatea denez, orain hasten dugun urte honetarako lan taldea osatzen beste ahalegintxo bat egin beharko dugu helburuak beteko baditugu. Hau dela eta eskoriatzar guztioi eskatu nahi dizuegu laguntza. Bai lantaldera hurbilduz, bai informazioa eskainiz: zuen laguntza behar beharrezkoa izango da Ze Barri?ren etorkizunerako.

Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuen.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**




LENIZ
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

ZER IRUDITZEN ZAIZU ZE BARRI? ALDIZKARIA



Asier Alegria

Langile eta ezkongabea.

Ondo dago kontenido aldetik baina motza da.



Iñaki Azkarate

Langile eta ezkongabea.

Ondo dago, nire euskara ez da oso ona, baina irakurtzen dut eta interesgarria da.



Nagore Beloki

Ikaslea.

Oraindik ez dakit irakurtzen baina argazkiak ikusten ditut.



Bidatz Lasagabaster

Ikasle eta ezkongabea.

Ondo dago, baina berriak azkarrak eta motzak dira.

Dabid Urrutia

Langile eta ezkongabea.

Ondo dago, baina motza da; formatua oso ondo dago.



Josu Luengo

Ikasle eta ezkongabea.

Orri gutxi dituen arren ondo dago; musikako berriak botatzen ditut faltan.



Arantza Unzueta

Langile eta ezkondua.

Beharrezkoa da Eskoriatza bezalako herri batetan, euskaraz gauza gutxi bait dago.



Jesus Urrutia

Langile eta dibortziatua.

Garrantzitsuen ateratzea da, baina orri gutxi ditu..



Emilia Kañamake

Jubilatua eta alarguna.

Ondo dago; ez dakit euskaraz baina argazkiak begiratzen ditut.

A&B
aholkulariak

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
ASEGURUA**

ALDETEC



-----**TASAZIOAK**
-----**PERITAZIOAK**
-----**PROIEKTU ING.**
-----**OBRA ZUZENDARITZAK**
-----**ERREFORMAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORLATZA**
(Gipuzkoa)

Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540 **ESKORLATZA****

Gastañadui, 7 - bajo

ESKORIATZAKO TXOSNAK



1997ko JAIETARAKO AKTIBITATEAK

- Txosnen dekorazioa (muralak)
- Tanborradan parte hartzea
- Bataloi intsumisoa
- Presoen aldeko bataloia
- Berakatz sopa
- Txiste txapelketa
- Malabarak
- Txosnaraokea
- Euskal preso politikoen aldeko manifestaldia
- Txalaparta
- Disfraz eta margotzea
- Porroi eta zahato txapelketa
- Bazkari popularrera kalejira
- Txokolatada
- Barru txapelketa kontzejupean
- ... (proposamen berriak onartzen dira).

IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

**FRANCIS
BODEGA**

Muñarrate ardoa

Gaztañaduj, 21 behea

TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa: 715046

MITOAK ETA UMEEN TANBORRADAKO KARROZA

Aurten Eskoriatzako Ume Tanborrada formaltzeko ahalegin berezi bat egin dugu. Aurten aurreko urteotan baino partaidetza haundiagoa lortu dugu: bataloiak osatuago aterako dira, bataloi berri bat ere bai, guztien buruan jenerala zaldiz eta atzean karroza.

Karrozan Aita Barandiaranek Ataun aldean jasotako mito bat errepresentatu gura izan dugu, gariaren lorpena kantatzen duena hain zuzen.

Zer dira mitoak? Lorpenak, gertaera naturalak, aintzinakoen bizitzako pasadizuak eta abar era alegorikoan dakartzaten alegiak. Gizatalde batek kontserbatu eta transmititu egiten dituen sinismen baliotsuak dira, erantzun ez zientifikoak izan arren.

Mitoak erritoetan dira ikusgai, hauek errerepresentatzen baitituzte eta hauek iraunarazten baitiete. Erritoak mitoa grabatu egiten du, iraunkor bihurtzen du.

Zelan jaiotzen dira mitoak? Gizakiok gertaera ezezagunen azalpenzale gara. Azalpenek lasaitu egiten gaituzte, fenomenoak ulertu eragiten baitigute.

Zelan sortu zen nekazaritza? Nola hasi ziren laboreak ereiten? Nondik etorri zen gari hazia? Horra hor gure mitoaren jaiotza aurretiko galderak.

Ataungo Samartin auzoko Arrateta inguruko mailoetariko baten puntan, herritarrek Jentilbaratza deiturikoa dago: harri handiz osatutako zirkulo bat. Nor ote da gai harriztar horiek finkatzeko? Basajaunak, jakina. Aralarpeko trikuharrietan dira lurperatuak azken jentilak: izaki primitibo galantak, basatiak, haranekoak baino aurreratuagoak, bai nekazaritzan, bai industrigintzan.

Martin dugu basajaunei, goikoei, gari hazia ostu eta harandarrei gerturatu ziena. Gertaera hau dugu laborantzaren hasierako mitoa.


Karrozan mito hori gaurko erara kontatu gura izan dugu, protagonismoa, Martini ezezik, Maialeni ere emanez, ikerketek nekazaritzan emakumeek izan duten garrantziaren testigantzarik asko ekarri baitigute.

Mito hau gogora ekartzean senti gaitezen aintzinakoen oinordeko, iraganarekin lotuta eta izan gaitezen gure kulturaren altxor honen izanpenaren bitartekari.



Garaje AITZORROTZ

Gasteiz bidea, z/b ESKORIATZA
Tfnoa: Tailerra (943) 714294 - Mugikorra 908 579051



Goiko mendietako basajaunak haranetan bizi ziren baserritarrak baino aurreratua ziren.



Maialen eta Martintxok, herriko gazte bik, basajaunek zuten altxorra lortu nahi zuten, gari haziak alegia. Honetan pentsatzen zEbiltzala, Maialeni ideia bat otu zitzaion:
- Martintxo, aitaren oinetakoak jantzi eta goazen basajaunak ikustera, bidean kontatuko dizut bururatu zaidana.



Martintxo, berriz, indar guztiarekin abiatu bazen ere, gari pila erdiraino baino ez zen iritsi. Bertan geratu zen sartuta.



Martintxo eta Maialen, burua makurtuta baino bihotza pozik, etxera mugitu ziren. Herrira oihuka sartu ziren:
- Garia, garia dakargu.

BASAJAUNEN

AKEITA

TABERNA

5etatik zabalik

Tfnoa.: 715094

KAFE, PINTXO eta BOKADILOAK

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora


 **kutxa**

fundazioa
fundación





Basajaunarengana iritsi zirenean zera esan zien Martintxok:
 - Harro zaudete, baina gari pila hauek ez dira hain handiak. Baietz gainetik salto egin ikutu barik!
 - Ezetz! - erantzun zion basajaunetarikoa batek. Nik bai, baina zuk ezetz!



Basajaunak hanka luzeak zeuzkan eta erraz egin zuen salto hori.



Oinetakoak erantzi eta gari haziak erakutsi zizkieten herritarrei.



Handik aurrera herritarrok pozik baino pozikago bizi izan ziren. Soroak laiatu eta garia ereiterakoan honela kantatzen zuten:
 GARI PILA GAINEAN MARTINTXO SALTARI
 HARREZKERO HERRIAN OGIA UGARI

Pub ALDATZ

Tfnoa.: 714171

Musika ona entzun dezazun

URRESTILLA

TABERNA

Tfnoa.: 714809

Giro ona bola inguruan

Z E B A R R I ?

HORRELA EGITEN DUGU



1.- Lehenengo bilera hilabeteko lehen astean izaten da. Hasteko, azkenengo alearen gainbegirada bat egiten dugu akatsak aztertzeko eta zuzenduz joateko. Ondoren gidoiaren puntu nagusiak finkatu eta lehen lan banaketak egiten dira.



2.- Bigarren astean elkarrizketa prestatu eta zein argazki zahar aterako dugun pentsatzen dugu. Erreportaia moldatuz joaten gara ordurarteko datuekin eta publizitatea zehazten dugu.



3.- Hirugarren asteko bileran gainbegirada orokorra egiten dugu daukagun informazio guztiarekin. Erreportaia eginda egoten da gehienetan, eta prestatzeko gelditzen direnak, berriak, interesgarriak eta agenda izaten dira. Bide batez maketazioari ekiten zaio eta baita zuzenketak egiteari. Materiala idatzi ahala zuzentzaileei eramaten zaie (ez beti behar bezain azkar) okerrak konpontzeko.



Gure argazkilarietako bat



4.- Laugarren astean maketazioari azken ukituak eman eta inprimategira eramaten dugu Ze Barri?. Maketazioa, ahal dugunean geuk egiten dugu, baina batzuetan inprimategian bertan egin behar izan digute.



Banatzailea da Ze Barri?-ren kateko azken


Z E B A R R I ?

VILLAR ILEAPAINDEGIA

Tfnoa.: 715042

MENDI IRTEERA

Anie tontorra duzue hau, eta jende guzti hori, Eskoritzako K.E.ko mendi taldeko txangoan parte hartu zutenak. Bi egunetarako joan ziren Belagoa aldera bertako paisaiak bisitatzera, eta, eguraldia lagun, Anie mendia igo zuten, Ekainaren 8an eta Lakartxela 9an. Hauek 22ko martxa ondo prestatu nahi zuten itxuraz.

**ESKOLARTEKO OLINPIADA**

Joan zen ekainaren 1ean 600 umetik gora izan genituen gure herrian Deba Garaiko Mankomunitateak antolatutako Eskolarteko VIII. Olinpiadan parte hartzen. Bailarako

herri eta eskola guztietatik etorri zen jendea, eta arratsalde osoan zehar kiroldegi berrian, Luis Eceiza ikastolan eta frontoian prestatutako ekintzetan jo ta ke ibili ziren gaztetxook. Etzegoen aukera makala, ez! Tirolinak, bizikleta martxak, ohe elastikoak, ... Etzen lan txikia izan antolatzen ibili ziren ia berrogeita hamar pertsonentzako. Umeek aktibitate guztiak pasa behar zituzten saritzat zegoen bixera jasotzeko, hala era, olinpiada hauen ideia guztiz ezkonpetitiboa da. Eguraldiak larregi ez lagundu arren, egun borobila izan zen.

LANAK SAN JUAN KALEAN

Itarte etxeko eta Elizako zubiko lanak bukatu ondoren, San Juan kaleari heldu zaio birmoldatzeko garaia. Horrela bada, etxe zaharrak bota eta etxe berriak egiteari ekin diote. Ea lehenbailehen kale hau berreskura daitekeen.

**benta-motz**

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

**CENTRO ÓPTICO
ESKORIATZA**

Eduardo Gorosarri
Plaza, 1 bajo
Tf 71 52 82

**TOKI ALAI**

Taberna
Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

**ESTI
ESTETIKA
ZENTRUA**

Arana 14 - 1º
Tfnoa: 71 43 70

TOPABERRI

Topaberri Euskara Elkartearen Topagunearen buletin da eta oraintxe atera da lehenengo alea. Buletin hau bi hilabetekaria izango da eta bertan Euskal Herriko Euskara Elkartearen berri emango da: herri aldizkariak, euskara elkarteak, eta euskararekin lotutako berriak.

Buletin hau etxean dohain jaso nahi baduzue idatzi helbide honetara:
**EUSKARA
 ELKARTEEN TOPAGUNEA,**
 San Juan, 14 20003 Donostia

eta jarri zuen datuak: Izen-deiturak, Helbidea, Herria, Kodea, Lurraldea, Telefonoa eta Faxa.



**EUSKARA ELKARTEEN
 Topagunea**

NESKEN SASKIBALOI TALDEA



Nesken saskibaloit talde nagusiak Bigarren Maila Nazionalera igotzea lortu du. Hamairu taldetatik batek zeukan maila honetara igotzeko aukera, beraz, meritu haundiko lorpena izan da Fernando Rasok entrenatzen duen taldeak egindakoa. Emozioa ere ez da falta izan, azken partiduan erabaki bait da ligako lehen postu hori eta ordurarte postu horretan egondako Atletico San Sebastian taldearen aurka beraien etxean jokotutako partiduan gainera. Zorionak!!!

EZKONTZAK

Antonio Vita Escobar eskoriatzarra eta Johana Martin Valiente urretxuarra udaletxean ezkondu ziren joan den ekainaren 7an.

AZOKA

- Renault 5 (SS-P) salgai. Deitu telefono hauetara: 799330-798135
- Ze Barrin informaziorik argitaratu nahi baduzu, utzi Kultur Etxeko Buzoian, Ze Barri-rako dela zehaztuz.

ERREDAKZIOAREN NOTA

Azkenengo alean aipatu genituen jaiotzen artean akats bi egon ziren: Aitzol Eraña Cabera beharrez Aitziber Eraña Cabero da eta Iñaki Aiestaran beharrez Iñaki Astiasaran.

Honez gain, Miami-tik dei bat izan genuen eta Enrike Iglesias abeslari famatuak (fama honen arrazoa guk ezin izan dugu ulertu) Ze Barri aldizkaria juiziora sartuko duela esplikatu zigun. Beraz, barka beza benetan Enrike Idigoras Arzaburuk bestearen izena jartzeagatik.

GAZTE AGENDA

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA:

- Uztailaren 2tik 12ra Baionan eta uzt. 14tik 26ra Iruñean, 25. udako ikastaroak, gai ugari jorratuko direlarik. EHUK eta UPNAK hautaketa libreko kreditu moduan onartuak dituzte ikastaroak. Matrikula epea: ekainaren 30Orarte.

BARNETEGIAK:

- Uda honetan zure euskara barnetegi batean hobetzera animatzen bazara, barnetegiaren zerrenda, mailak, prezioak, e.a.ri buruz informazioa emango dizugu Gazte Bulegoan.

UDARAKO LAN BRIGADAK

- Askapenak antolatuta, Guatemala, Txipapas, Palestina, Mexiko, Ekuador, Kuba eta El Salvadorrerako lan brigadak. Informazio gehiagorako: 552365.

BEKAK

- Nekazaritza, nekazaritzako elikagai eta arrantza arloko ikerketa zentroetan praktikak egiteko beka deialdia egin du Eusko Jaurlaritzak, lizentziatu, goi-mailako ingineru, injeniari tekniko eta lanbide heziketa arrantza nahiz nekazaritza arloan burutua dutenei zuzendua. Epea: ekainak 30.
- Iraupen laburreko arte-eremuko jardueretara joateko laguntza poltsak emateko lehiaketa irekia antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Epea: ekainak 30.
- Saiolanek graduostekoentzat antolaturiko enpresen sorrerari buruzko ikastarorako beka aurrikusi ditu. Epea: uztailak 4.
- Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomi Elkarte eta Erresuma Batuko ikertzaileen arteko elkartrukeak finantziatzeko dirulaguntzak aurrikusi ditu. Epea: irailak 15.
- Osasun eta Kontsumo Ministerioak irekia dauka Europako Batasuneko edo Iberoamerikako herriekin elkartrukea burutzeko beka. Epea: urte osoan zehar irekia.

LANA

- Alegria-Dulantziko Udalak, tronboi eta tronpeta irakasleak behar ditu. Epea: uztailak 1.

LEHIAKETAK

- Eusko Jaurlaritzak, Enpresak Sortzeko Gazteentzako XII. Ideia Lehiaketa antolatu du. Epea: irailak 19.
- Zumarraga eta Urretxuko Udalek, urteroko lehiaketak antolatu dituzte, modalitate ezberdinetan: Narratiba eta poesiako Iparragirre Saria, pintura, komiki, bertso paper eta argazki lehiaketa. Epea: irailak 26.
- "Imajina ezazu Euskadi", X. Ekitaldia, jpuinak, margolaritza, argazkigintza, eta poesia modalitateetan. Epea: irailak 30.

UDALETXKO IRAGARKIA

Eskoriatzako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren arabera norbaitek Foru Aldundira eskari, idatzi edo dokumentaziorik bidali nahi izanez gero, ez du haraino joan beharrik izango eta nahikoa izango du dokumentuok Eskoriatzako Udalaren Erregistro Bagusian aurkeztea.

(ASTELEHENetik OSTIRALera goizeko 10,30etatik 13,30etara, eta OSTEGUNetan 17,00etatik 19,00etara ere bai).

GARRANTZITSUA: Kontratazio prozedimentuetan ezin izango da plua eta eskaintzarik aurkeztea.

UDALAREN ERREGISTRO NAGUSIAREN BITARTEZ ONDORENGO SAILETRARA BIDALI AHAL IZANGO DA DOKUMENTAZIOA:

- LEHENDAKARITZA SAILA
- SAILBURU NAGUSIA
- GARRAIO ETA ERREPIDE SAILA
- EKONOMIA SAILA
- NEKAZARITZA ETA INGURUGIRO SAILA
- HAZIENDA ETA FIDANTZA SAILA
- OBRA HIDRAULIKO ETA HIRIGINTZA SAILA
- KULTURA ETA EUSKARA SAILA
- GAZTERIA ETA KIROL SAILA
- ULIAZPI FUNDAZIOA, ERAKUNDE AUTONOMOA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

ZE BARRI ?

Argitaratzailea:
AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Eredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa.
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 1700 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

Saioa Esnal Gamboa; Zuriñe Perea Rielo; Leire Otamendi Tolosa; Ainhoa Kortazar Arana. Trikitilariak.



1-Zein instrumento jotzen duzue bakoitzak?

S : Soinu txikia ; Z : Panderoa ; L : Panderoa ; A : Soinu txikia.

2-Noiz ikasi zenuten?

S : 6 urte ; Z : 4 urte ; L : 4 urte ; A : 6 urte.

3-Zenbat urte daramatzazue elkarrekin jotzen?

Gutxi gora behera 4 urte.

4-Ze akademiatan edo nola ikasi duzue?

Denok Adolfo Jainagarekin (Eibarkoa).
 S. eta A. : lehenengo 3 urte Legutianon eta gero hemen , Eskoriatzan.
 Z. eta L. : Lehenengo 2 urte Legutianon eta besteak hemen Eskoriatzan.

5-Astean zenbat aldiz egiten dituzue entsaioak?

Astean behin.

6-San Pedroko jaietan joko duzue?

Uste dugu baietz , aurreko urteetan jo dugu eta aurtan ere jotzea espero dugu.

7-Eskoriatzan badago modua edo lekua instrumento horiek jotzen ikasteko?

Bai , oktogonoan Adolforekin astelehenetan.

8-Zer egiten duzue zuen denbora librean?

Lagunekin egon.

9-Zein aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?

Subentzio haundiagoak trikitilariarentzat.

10-Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?

Gutxitan irtetzen da baina bestela ondo.





San Pedroak hementxe ditugula eta hilabete honeteko argazki zaharraren txokoa orain hogeitun urte ateratako argazki honekin ilustratuko dugu. Tanborrada dela argi dago, ez? Sukaldari jantzita, berriz, Roberto Kortazar eta Pedro Lucero ditugu. Robertok kontatu digunez, egun haietan Euskal Herri osoan “Bai Euskarari” kanpaina zebilen eta tanborradako denek “Bai Euskarari”-ren pegata eramatea erabaki zuten. Exenplu ona gaur egungo sukaldarientzat ere.

**ZE BARRI-k JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE HERRITAR GUZTIOI**